

25

BAÍOLA AIZPURUA'TAÑ ABELIN'EK  
SÓRTUA

# LAGUN TXAÑ BAT

IRU EGINTZETAN ANTZERTI ITUNA



Di-  
 ATU  
 16038  
 pesta t'erd  
 2,50



H-62242  
F-63028


AV  
36038

BAIOLA AIZPURUA 'TAÑ ABELIN' EK  
SORTUA



# LAGUN TXAÑ BAT

IRU EGINTZETAN ANTZERTI ITUNA



DONOSTIAN 1912<sup>o</sup> URTEAN  
«EUKAL-ITZ JOSTALDIEN BATZAREAK»  
EGINDAKO INDAÑ-NEURTZEETAN AURENEKO  
SARIA IRABASIA



DONOSTIYAN  
JOAKIN BAROJA'REN ETXEA



## ALZAGA'TAR TORIBIO JAUNARI

*Iruditegian aurreneko oinkadak  
ematen zuk erakutzi zidazun.  
Zugandik etoñi zait euzko-antzerñi  
gaietako zaletasuna  
Ezta bada aritzekoa orain arte,  
nere ustez, egin dedan lanarik  
egokiena zuri opatzea  
Ar ezazu gogoz irakasle bikaña  
ta lagun ona.*

EGILEAK

## IRUDIGILEAK

KAITANA.....	Afantzale andria.
MIKELA.....	20 urteko kayeko neska gastia.
KARLOTA.....	25 urteko kayeko neska gastia.
AITON JOXEPE.....	Sotoko aitona.
ANJEL.....	25 urteko afantzale gastia.
BITOR.....	45 urteko afantzalia.
BONI.....	Kaletara.
PAKO.....	Kaletara.
MUTILA.....	Kafekua.
TUTULUX.....	Gaste txit lodi bat.
KOIPE.....	Gaste txit igara.
LANPERNA SALTZALIA...	Urrietan sartua.
NESKATILA BAT.....	Ageritzen eztana.
ANDRE BAT.....	Id. id.

Ereslariyak, **JOSE PATXO**, 50 urte (epiliziko) edo bi mikelete.

Gerfaera Donostian.

Ezker-eskubiyak antzezlarienak.



## AURENEKO EGINTZA

Irudibegiyak «Barrio Jarana'ko» aiantzale baten etxeko sukaldia agertzen du.

Eskuitan, aurrea ate bat, ta bigaeren leyna.

Atzian, eskui aldean, sukaldia bere tximini gain ta guzti, ta beste aldean sañerako atia.

Ezkeretan beste atia. Inguruan mai bat bere *sila kin*. Danian aiantzako tresnak, kañabelak, sare puskak...

Leyuan zapiyak, ta erizean añai zakañak (potak) zintzilik legoñizen.

## LENBIZIKO IRUDIA

### I

KAITANA ta AITON JOXEPE, atariyan MIKELA.

*Aiton Joxepe exerita trezak azkatzen ta kulubixetan koñdela lotzen. Erainña, Kaitana, sutan eltziak jartzen.*

MIKELA. *(Ataritik ojuka)*. ¡Ama!

KAITANA. ¿Alaba al zan?

JOXEPE. Ala uste diñat.

KAITANA. *(Leyotik begira)*. ¿Zer da?

MIKELA. Aita badatoñela.

AITONA. Goiz zetoztin gauñ, ezitunan urñti.

KAIT. Bai, iñauteri biaramonian nola eztiran buruak lan asko egiteko egoten, berñan geldituko ziran.

AITON. ¡Iñauteria! ¡Deabñuak soñtutako egunak. Buruan sañtua zekanañ, oraindik egun oyek ekañi biañ digutela guri negaña.

KAIT. ¿Guri? ¿zertatik?

AIT. ¡Deun Jose aita neriak ez dezala nai! bañan Kaitana, kezka aundi bat zekanañ baren onetan... batez ere gauñ goiz ezkeru.

KAIT. ¿Zerñ egiña?

AIT. Ire alabaren ibilerak.

KAIT. ¡Ba! ¡gastiñ gauzak!

AIT. ¡Deun Jose neriak, ¡ama baten erantzupenak!

KAIT. Zerñ nai dezu ba; gasteago dala ez da ibiliko.

- AIT. Okeñago ere ez. Kaitana, nik izan dixkiñat alabak, baño egundo eztitene gabik galdu, iriak galdu duben bezela.
- KAIT. ¿Nere alabak?
- AIT. Bai ire alaba, nere biloba Mikela, bañt ezten etxeratu. Gau erdiyan sotorako otz egitera juañ naizenian etzionan oyian. ¡Deun Jose! ez, etzunan oyian ta etzekiñat gero noiz sañtu dan.
- KAIT. Arñtzen naiz aita esaten dezunakin.
- AIT. ¿Arñtu? ni bat-ere ez oraingo bere ibilerak ikusi ta.
- KAIT. Ez gaitezela lañtu geyo gabe; ez da auñ.
- AIT. Auñ ez dalako okertu den.  
¿Eziakin ik iñauteri madarikatu oyetan zenbat sare jañtzen ditun deabñuak gastiak galtzeko?
- KAIT. Gaste txoruak.
- AIT. (*Gogor*). Ire alaba bat. Kaitana ¿noiz sañtu da bañt etxian Mikela?... erantzan nazan... ¿noiz?...
- MIK. (*Len bezela*), ¡Ama! sañtu da baporía.
- KAIT. (*Leyotik*). ¡Banian! (*Aitona'ri*). Ara *pronto* maya, sutatik bazkariya atera, ta eman semiari.
- AIT. Emango ziñuat.

## BIGAREN IRUDIA

### II

AITONA (bakañik).

- AIT. ¡A! ¿erantzun gabe zuaz?  
!Abek gurasoak, Deun Jose nería!  
¡Gauza gogora da!  
¿Noñk esan, aingerua bezin ona, ta oraindik urte gutxi nere belau netan txanbalaka, ta besoetan lo, jateko zoriyan, edukitzen nuben nere bilobatxua, gauñ añotua, ta lotsagabetua dagola? ¡Deun Jose! bai lotsagabetua ta aitonagandik igasi bere itz on bat entzun nai ezik.  
(*Iharaz ta itun*). ¡Ta bañt, bañt ez da etxeratu!  
¿Non ote zan? ¿jolasen batian? ¿dantza nabañen batian?  
¡Jauna! ¿nere Mikela okertu ote da? Ala balitz ere zuzen-



du beār degu ¿Nork? ¿nik? ¿nola entzun nai ezpadit?  
Ez, neri ezpada bere aitari entzungo diyo. Nere semeari  
aitōrtu beār diyot dana, ta zuzentzeko lanteri au bere  
gain ārtzia gaitz izan āren beārtuko det.  
¡Beārekoa da! ¡Deun Jose, ain beārekoa!

## IRUGĀREN IRUDIA

### III

#### AITONA ta ANJEL.

- ANJ. (*Besopian otara, zira, kulibixak*). Āratsalde on.
- AIT. ¿I al aiz Anjel?
- ANJ. Bai patroyaren tresnakin. Itsasua dakar ta baporía ondo  
amāratzen gelditu da.
- AIT. ¿Asko ekāri al dezute?
- ANJ. Gutxi, amabat ārua.
- AIT. ¿Bērtan al ziñaten?
- ANJ. Bārengo kalan. Bi gizon *palta* genitun, makinista ere  
ērdipūrdi zeon, ta patroyak eztu ūrutiko kala'ra juan  
izan nai.
- AIT. Ūrterokua; ibili nola nai iru egun oyetan ta austēri egu-  
nian buru txara.
- ANJ. (*Samin ta burua'ri elduaz*). Aiton Joxepe...
- AIT. ¿Zēr dek?... ¿ik ere buruari euzten aldiyok?
- ANJ. ... Nik ezin nezake geyo. .
- AIT. ¿Orain ere Mikela'ren kontuen bat alde?
- ANJ. Bai pārez ōr gelditu da, eta jāranua! bere laguna ere bai...  
Aitona txinista nazu ta Karlotare'kin ibiltzen dan bitā-  
tian ōrela izango da... okērago jārtzen ezpada.
- AIT. ¿Karlotare'kin al zan orain ere?
- ANJ. Beti elkārekin dira, eta aitona, jārdun batzuek ari dira  
neska ōretzaz! Au dala, ura dala, au dubela, ura dubela;  
nik eztakit, bañan zērbait esan liteke. Aspaldiyan iñongo  
sotuan eztu lanik egiten, eta ōr dabil apainduta gure  
ārtian egoki eztan bezela.
- AIT. Eta nere biloba ōrekin...

- ANJ. Beti.
- AIT. Anjel ¿ik esan aldiyok ezer?... naiko ukenik berakin ibili... maite dekala edo...
- ANJ. ¿Esan?... ori ez da esan biazik... eta gañeaz ¿utzitzen aldu? beti an badaka zirikatzeke laguna.
- AIT. Nik esango ziyuat.
- ANJ. Bañan aitona ez nuke nik beren pañagañi gelditu nai.
- AIT. Ez, ezagutzen diat Mikela nere biloba, eta asko naiziyuat, iri ere bai... eta jakingo diat zeñ egin.
- Bitoñ zetoñek, bazkariya ateratzea niak.
- ANJ. Banijua oñduan aitona, agur.
- AIT. Agur Anjel.

## LAUGAÑEN IRUDIA

### IV

#### AITONA ta BITOR.

- BIT. Añatsalde on.
- AIT. Jaungoikuak eman deigula.  
*(Bitoñ'ek atera txamara ta botak ta maieratu aitona sutatik ekari dion bazkariya jateko).*
- Gaur gutxi zenuten.
- BIT. Gutxi, jende oñekin nora jua.  
*(Bitoñ'ek jan. Ixil alde bat).*
- AIT. Bitoñ, gaur oso lañi niok.
- BIT. ¿Zeñgatik?
- AIT. Mikela'ren gatik. Gure neskatila etzebilek zuzen... Mikela, urtiak edo lagunak, lagunak obeto urtiak baño, arotu egin ditek dana.
- BIT. Aita, zentzun gabeko zure keska balzuek izango dira oyeke.
- AIT. Eztek ba-ezpadan añtzeko gauza.  
Mikela okertzen ari dek. Mikela'k burua aisez josiya zekak. ¿Bestela uste alde egingo lizkakela oñbesta uruin ta burla ire baporeko mutilik zintzuenari?
- BIT. ¿Gastien gauzak!

Arr. ¿Gastien gauzak? Bitoř ¿neska gastien gauzak aldituk aítona'ri pař egítia? ¿neska gastien gauzak aldituk amari pař egítia? ¿neska gastien gauzak aldituk, entzuntzak ondo, gabian ez etxeratzia?

Bit. ¿Nola?

Arr. Bitoř, bařt ire alaba eztek etxeratu. Goizeko ořdubitan oya oraindik utza ziókan, geruago etoři bada etzekiak.

Bit. (*Jatez utziyaz*). ¿Bai aldaki amak?

Arr. Zeř-edo-zeř bai, nere galdeera bati erantzun gabe juan dek eta.

Bit. Aita, jaři zazu beriala Kaitana jakiñen gañian eta biyak ař zazute Mikela gogoř.

Arr. Kaitanak ez, eořek ařtu biař dek gogoř.

Bit. ¿Nik?

Arr. Eořek bai. Esan eztiat ba pař egiten digula guri. Eořek esan biař diyok.

Bit. Lan oyetako ez naiz ni gauza.

Arr. Gauza ez aizela eta ¿zeř uste dek beste geyo gabe utziko atela?

¡Deun Jose! ¿i ez aiz bere aita? ¿Zeř uste dek mantendu ta jantzi beste zeř-egíñik eztezutela gurasuak? I aiz ludi onetara, Kaitana'ren gandik, Jaungoikuaren eskeřez, sořtu ta ekaři dekana. Ik eořek, gauř edo bigař, Jaungoiko ořen beren aurian *kontu* eman biař dekana, erakutzi dizkatzuten aziera ta ikasbide guziyaz.

Ala ezpalitz ere, ikusten eztek Mikelatxo gure alaba bakara dala. (*Oso xamuř*).

Entzun nazak gogoz, eta alegiñak egin itzik gure neska-tíla zuzentzen, eta Deun Jose'ri eskatzen ziyuat betaz asitzeko bestela ¡seme! samintasun ořek ilko niok.

Bit. (*Zakař eskuan daukan ogi puzka luřera botiaz*). Datořela neska.

Arr. Bai Bitoř etořiko dek, bañan zakařkeriyan eztek askorik aterako.

Bit. ¿Zeř egin biař dei ba?

Arr. Tajuz asi. Auřena bařt zeř zuben jakiñ, eta zeř dabilen esan azi.



- BIT. Ondo da.
- AIT. Nik uste diat lagun txar bat dala okeñtu dubena, ta galerazi biar diyok arekin ibiltzen.
- BIT. ¿Lagun txar bat? ¿noñ?
- AIT. Beti berarekin dabilena, Karlota, Katalin negartir'en alaba.
- BIT. ¿Amaren antzekorenbat?
- AIT. Okeñagua ezpada. Eta eztek aritzekua ¿zeñ nai dek ama aren eskuetatik irtentzia?
- BIT. Onik ez.
- AIT. Ikusten dek ba seme larri egoteko eran nagola eta baita i ere. Inauteriko jolasen bat bakañik balitz bañtko erua, bañan etzekiat, etzekiat.
- BIT. Zuzenduko det aita, utzi neri.
- AIT. Baniak satora trezak zabaltzera, eta seme, ez aztu gurasua aizenik eta Mikela, nere biyotzeko Mikela'ren izaesa on guziya, oraingo ibilera zintzuetan dagola.
- BIT. Ez.

*(Irtengo da aitona. Eutzungo dira atariyan pañ otsak. Begiratuko du Bitor'ek leyotik).*

¿Pañ otsak?... berak dira. Orain ere Anjel'ekin dute. ¡Neska arañua! ¿Noñ biar ote du ori baño obia?

## BOSTGAÑEN IRUDIA

### V

BITOR, MIKELA ta KARLOTA

- MIKELA. *(Atetik izketan).*  
Bai iruretako *tranbian* Matutene'ra. Musua bestu gabe zuaz sombrañu lastozkoarekin... iaja ja!<sup>1</sup>...
- BIT. *(Zakar)* Mikela ¿zeñ dezute?
- MIK. *(Oso legor)*. Utsa... Atoñ auñera *(karlotari)*.
- BIT. ¿Noñkin unan?
- MIK. Zea... iñoñkin ez... *(Karlatak atetik sartu nai ez)* beriala irtengo gaitun atoñ.
- BIT. ¿Nora ua?

- MIK. Orea (*Ezkeretako gela erakutziyaz*),  
BIT. ¿Ez aliyokan ama'ri lagundu biar?  
MIK. ¿Zeñtan? ¿ekari dezutena jasotzen? ¡A zeñ bixigu pila zenuten!  
BIT. (*Bi ukabilak estutuaz*) ¡Mikela!  
MIK. ¡Tuñmoya! oñegatik etoñiko ziñaten oñen goiz, eñdi añribadan... guazemak gu ere... igasi.  
(*Sañtuko diru biyak ezkeretako atetik*)  
BIT. Mikela atoñ onera, atoñ onera. ¡Parañ ineri pañañ!..  
¡Joñ zapaldu! puzkatukoat eskuetan...!  
(*Ate ondoan geldituaz eñdi negañez*)  
Ez... ez... eztakit... ez nuen onela asi beañ. Aita, aita, añazoi zendun. Mikela okeñtu da, ta zeñbait egiteko premiyan añkitzen naiz... bañan ni ez... ez naiz gauza... ez... ez...  
(*Juango da eskuitatik. Une batian iruditegiya utzik*)

## SEIGAREN IRUDIA

### VI

#### MIKELA ta KARLOTA

Itengo da aũrena Karlota - Gero Mikela ta itzaldiya egiten duten bitañtean jantziko da, ta ixpilu baten aũrian oñastu.

- KARLOTA (*Agertuaz*). Juan den.  
MIK. Baziñan oñdu. Iya ikaratu nindunan. ¿Bañ bailian giñala jakiñ ote du?  
KAR. ¿Noñk esanta orain itsasotik badatoñ?  
MIK. Etzekiñat; amak bakariñ zekin, ta añrek agindu ziñan etziyola itzik esango.  
KAR. Ta esanta ere zeñ. ¿Oñenbesteko pekatua alda baile batian izatia?  
MIK. Etzekiñat; bañan alde egin ezpagendun sermoya gañian niñan. Egundaño eztiñat ikusi nere aita oñelako añpegi ilunarekin.  
KAR. Gariziman nola sañtu geran...



- MIK. Izan-ere gauñ austeri, autsa artzeko eguna. Txiki, txiki tandik juaten nunan nere aitonarekin goiz onetan Elizara. Meza entzun ondoren aldare aurian belaunikaturik artzen genikan biyak kopet gañian autsa, entzunaz apaizaren aotik, ta gero bide guztian nere aiton gizarajoen ezpañetatik: autsa gaitun, autsa izango gaitun, ta auts biurtuko gaitun. Elizatik irten ta amari erakustera juan arteko pakerik ez niñan izaten ikutu ere egin gabe jañitako lekutik. *(Oldozkoñ)*  
Ori iñoiz... gauñ...
- KAR. Guk artu diñau gauñ.
- MIK. ¿Zubek? ¿noiz?
- KAR. Seyetan Etxera gatozela gogoratu zayotek mutilari eliza'n sañtzia, ta nola orduantxe ematen aritunan danok artu diñau.  
¡Guk egin ditugun pañak!
- MIK. Ni ez nunan juango.
- KAR. ¿Zerगतik ez? ¿zeñ uste de nik dala Eliza, zeñ apaizak, zeñ oyen beriketak, zeñ ango autsa?
- MIK. Bai, bazekiñat, bañan ez nunan sañtuko.
- KAR. Ezagun den oraindik keska guztiyak ez ditunala bota. Boni'k kenduko dizkin burutik.
- MIK. ¡Boni'k! neretzako ote zion.
- KAR. Noletan ez ¿ire ama'ri ere esan etzion ba maite auela, ta irekin ibiltzen uzteko?
- MIK. ¿Juango ote dira gauñ aratsaldian?
- KAR. Onezkero an ditun.
- MIK. Ni ere oraintxen pronto nan ba, bañan etzekanat batere pozik juateko.  
Iruditzentzat ezfiralá gure erakuak, eta ayen gureganako maitetasuna ez dala benetakua. Aitonak diyona, len ere gure antzeko neska asko olakoakin ibili ařen gutxi edo iñoñ eztala ezkondu..., ta bai asko galdu.
- KAR. Galdu ¡aja! ¡ja! ¡ja! Iri osaindik Anjel gogoratzen zain.
- MIK. Etzekiñat, bañan ezten senañ-gai okera. Txaraguak makiñatxok artzen dizkitene.
- KAR. Bai, ta or zebiltzan txaruan oliyo gutxi ta suduretán naikoa dutela.

Gauñ zeñbait dan neskak ez tin ezkondu biar... olakuakin beñepin.

MIK. ¿Olakuakin? ¿Zeñ besterik zion ba guretzat?

KAR. Boni, txorakeri oyekin galtzen ezpaden. Ire lekuan beste enbat añkituko balitz ibiliko luken goñputz ta animaz mundik poz ta atzegiña emango lioken, ta i, itzuli ta biuñi abil ire gogo epela agerñtuaz.

Betiko ire ongi izatia eoñen gain zion, ta ezten ikusi nai. Zoriona ire atsetik zebilen, bañan ziñezko zoriona, diruak ta aundizkiak ematen dubena, ez añastakako ta añloteta-sunezko bizikera erukariyak ematen dubela esaten duten zorion añgal ura... laja... ja. ja!

MIK. Guazeman.

KAR. ¿Abainikorik bai alden?

MIK. Bai goñdia zekanat.

KAR. Artzan ba, ni ere bila nian etxera. Itxongo nan pitin bat bian.

MIK. Ua; bitañtian abek jasoko dizkiñat.

KAR. Beriala nan ni bian.

MIK. Baita ni ere.

## ZAZPIGAREN IRUDIA

### VII

MIKELA *bakarik*.

MIK. Bazkaldu gabetanik oyeratu da nere aita, dana emen lagata. Asare zeon gauñ ¿ni gatik ote da? ¿bañt *bailian* izan naizelako?

Bañan Kañlota'k diyona ¿zeñ gaitz da ba ara juatia?

Ni ez bezelako makiñabat emakume bazan, ta geyenak zomoñoz, mazkaraz, jantzita.

Ango zalapañta, algara gozo ta erokerizko ibilerak. Ango dantzak, jan-edanak, musika soñu ta bulak.

Guztiyak orañdikan emen dakaizkit nere buru bañenian, ta gora ta bera, batera ta bestera neoni nere Boni'n besotetan bezela darabiltzkit. ¡Nere Boni!... Aitoñtzia nere zez ez da gutxi. ¿Ta zeñgatik ez berak nai badu? Aberatza, ba-



pore jabia, gizon bakaña ¿noñk galeraziko diyo? Biyotz guziz maite nau, ala diyo beak beñepin, erantzun zaiotan nik ere beñdin. Karlota, añazoi dezu, obe det Anjel baño. Au ona bada, ura ona ta aberatsa bi ontasunen jabe dana.  
(*gelara juaten asiko da*)

## ZORTZIGAREN IRUDIA

### VIII

#### MIKELA TA ANJEL

- ANJ. Añatsaldeon Mikela.  
MIK. ¡Anjel! ¿zeñtara datoñ au?  
ANJ. (Aitonak agindu bezela aitak Karlota biali du, eta bakarik dagon ezkeru itz egin nai diyot).  
MIK. ¿Zeñbait biar aldezu?  
ANJ. Ez.  
MIK. Oñduan aguñ, banijua.  
ANJ. ¿Nora Mikela? ¿nora?  
MIK. Ara.  
ANJ. Ara, ara, ¿naidezu nerekin juan? goiza da, aldatuko naiz beriala ta biyok juango gera ara... ara, nunbaitera zuk nai dezun lekura.  
MIK. Ez da gaizki esana.  
ANJ. (*pozturik*) ¿Nai dezu beaz?  
MIK. Gaur ez, len esan bezela gaurko lagunak egiñak ditut.  
ANJ. Mikela, ez nazazula oñela erantzun. Beti nigandik igasi zabilta arpegì txara jañiyaz; iseka ta pañez inguruan zeran guztiyan. ¿Zeñgatik egiten nazkitzu uñuin oyek? ¿Zeñgatik agertzen nazu oñen gogo gaiztoa?  
MIK. Añgatik.  
ANJ. ¿Añgatik?... Zure lagun txar Kañlota gatik. Ori da zuri bu-rua aizez betetzen dizuna ta nigandik atzeratzen zaituna; ori nigatik gaizki esaten dizuna, zu ta beste neska geyo bere bidian jañi arñteraño pakerik izango eztuna; berari esaten zaizkan egi lotzagañiyak nori zabaldu izateagatik.  
MIK. Oyek ezin eraman dutenen jañdunak dira.

- ANJ. Mikela, gañatzak irudituagatik egiyak dira eta zuretzat ere laister asiko dira oñekin bazabiltz.
- MIK. (*Bizi*) Beritzuaren jardunak eta gaizki naidigutenenak, beste ezeñ ez.
- ANJ. ¿Oyen artian naukazu ni?
- MIK. Eztakit.
- ANJ. Badakizu bai nik gaizki nai etzaitutala. Zuk nai aña ontasun ta zorion opa dizkitzutela, ta nere gain leoken guztiyan alegiñak egingo nitukela zure gan danak ekañtzeko. Itz batian Mikela, maite zaitut ta oñegatik nai zinduzket ikusi nerekin beste era batian eta beste bide obian.
- MIK. Auñeneko ori beñepin.
- ANJ. ¿Zerगतik ez? egiya txalupik ez detala, baporerik ere ez, ez naizela diruaren jabe bañan badakizu, iñor badata, kai guztiyan ondo ikusiya nagola. Itsasoan bildur gabia, legoñian paketsua, arantzale trebea, gizon prestua. Patroi izan nai badet ere, baporria nork emana izango detana.
- MIK. Egiya da.
- ANJ. Oñduan ¿zerगतik zabilta igasi? ¿Zerगतik?
- MIK. Ni, eztakit.
- KAR. (*Kaletik ojuka*) ¡Mikela! Zai nion ¿ez alator?
- ANJ. Karłota'ren deya.
- MIK. (*Leyotik*) Bai, banian.
- KAR. ¡Mikela!
- MIK. (*leyo ondotik*). ¡Banian!
- ANJ. Mikela, etzera juango, iñola ere eztet nai, etzaitut Boni ta bere lagun neska galtzaile oyekin juaten utziko.
- MIK. (*apal*) Anjel utzi nazu.
- ANJ. Ez, ¿etztakizu ba Karłota oyekin bide txarñian besterik ez-tala ibiltzen, ta nik nere andretzat autua daukatena ezin nezakela, izketan ere, oyekin ikusi? Mikela utzi zazu Karłota, ta geldi zaitia, geldi, ta zuk zeonek auñez-auñe berari esateko arpegirik ezpadezu. nik esango diyot, ta galeraziko diyot betiko emen sañtzia.
- MIK. Ez, utzi nazu, neonek egingo det ori.
- ANJ. ¿Noiz?
- MIK. ... Bigarñ...

- ANJ. Bigar ez, beriala.  
KAR. (*barendik*) ¡Mikela!  
ANJ. (*leyotik ojuka*) Eztijua... zuaz bakarik.  
MIK. ¿Zer oju egin dezu?... iau lotsa! ¿zeñ esan biar du Karlota'k?  
ANJ. Dijuala pakian betiko.  
MIK. Ni ere banijua.  
ANJ. ¿Nora?  
MIK. Nai detan lekura.  
ANJ. (*besotik elduaz*) Ez.  
MIK. ¡Geldi! ¿zein zera zu neri galazteko!  
ANJ. Galazteko inor ez...  
MIK. Kendu auñetik orduan.  
ANJ. Bañan añen egiteko bai... ta biyotzetik ezkatzen dizut...  
agiyan azkeneko aldiz...  
MIK. Eztet zeñ entzunik.  
ANJ. Begira zazu zeñ egitera zuazen. Bart *bailian* izatia asko  
eztala, orain beñiro oyetara juaten bazera, nerezikua egin  
dezu, ez dizute nere begiyak buru austerik geyo emango.  
MIK. Obe.  
ANJ. ¿Izango zera oñen gogoña? (*Ezkutik dakala*).

## BEDERATZIGAREN IRUDIA

### LENGUAK eta KARLOTA

- KAR. ¡Aja, ja, ja! ¿Nai aldezute apaizaren bila beriala juatia?  
MIK. (*Karlota gana junaz*) Karlota, guazeman.  
KAR. ¿Bakarik ala oñekin?  
MIK. Bakarik.  
KAR. Ori etzion beñepin gure arterako. txukuna.  
MIK. Utzi akiyon ta guazeman.  
KAR. (*Len bere antzera*) Eztijua... zuaz bakarik... ¡aja ja! ¿zeñ uste  
ote du oñek beretzako oñasten geradela gu? ¡aja ja!... eltze  
zararen arpegi ori bejira...  
ANJ. Zaude ixilik ta zuaz azkar ortik.  
KAR. ¿Ni? azkarago jaungo zera zu. ¡Koñe! ¿Zer egiten dezu  
zuk emen? ¿Zertara etori zera? ¿Treznak ekartzera? ba  
utzi ta ospa... ¡ikusiko da masopa! aitzekitan etori patro-



yaren etxera ta alaba atxitu nai somolo... somolo... ezeñ egingo ezpalu bezela.

MIK. Utzi akiyon ta guazeman.

KAR. Goiz egin den etxiaren jabe ¡azkañ asi den agintzen ¡Kontxe! ¡marikita añanua! etxetik ni juateko, ¿noñk esan? oñek... eskaletatik baño leyoetik ankaz gora lenago bota biar genuken mutuñ beltz oñek.

ANJ. ¡Lotsagabe ori!

KAR. ¿Lotsagabia? ez zu bezin aundiya.

MIK. Guazeman Karlota.

KAR. Eztiñan nai au juan añtian, emen egongo nan.

MIK. Ni banian ba. (*juango da ate ondora ta ondoren jaraituko dio Anjel'ek*).

KAR. Mikela, bazian, oñden a¿zetik. (*biurtuko da Mikela Anjel'en aurtetik geldituaz au itza abuan dubela*).

ANJ. (*Karlota'ri ukabila altxiaz*). ¡A zikiña!

KAR. ¡Aja ja!... ¡amutik dontxelak igaz egin! naizendun ixilik añapatu ta... poto... Mikela begira akiyon zeñ añpegiya daukan; bañt bailian zebilen aurtnegarti añen *maskara* zirurin...

MIK. Au neska, onen atera-aldiyak.

KAR. Moñoño, bakañik juan biarño dezu... aurtzayak ez du zu-rekin juan nai ta. ¡Kontu punpalax egin... ta añpegiyarekin luña zikindu...!

ANJ. ¡Deabruen neska!

KAR. ¡Apa, apa, apa, ama, ama, ama, aita, aita, aita!...

ANJ. Ixildu ari azkañ bestela...

KAR. Pañ pitin bat egitian... ezta ala potxolo...

ANJ. Emango diñat nik iri paña. (*Angel'ek botatzen dio ukabilakada bat ta Karlotak eginten du karañi*).

KAR. ¡Ai!...

## AMARGAÑEN IRUDIA

### X

#### LENGUAK eta AITONA

AIT. ¿Zeñ da emen? Anjel, Mikela ¿zeñ da emen?

ANJ. Lotsagabe ori ixildu nai nuen.

- AIT. ¡Karlota nere etxian! Dijuala emendik azkañ.
- MIK. (*Karlota'ri*) Oñatx, orain aitona; len juan ezgelarako. Guazeman emendik azkañ.
- AIT. ¿Mikela, nora ua?
- MIK. Aizia aĩtzea.
- AIT. Karlotare'kin ez, orĩ dijuala bakarik nai duben lekura.
- MIK. Biyok juango gera, nai degun lekura.
- AIT. I ez, ik egin bĩañ den aítak agĩndu dikana.
- MIK. ¿Aítak? oĩduan ezeĩ ez.
- AIT. (*ariturik*) ¿Ez aldin ezeĩ esan?
- MIK. Ezta ja bat ere.
- AIT. ¡Deun Jose! oĩduan nik esango diñat, bañan oĩen auĩan ez, bakarik.
- KAR. Guazeman agure oĩen beriketak utzita.
- MIK. Aitona, ez gaude zure beriketak entzuteko... aĩtsalde ontxua dago.
- AIT. (*besotik elduta*) Mikela geldi ari emen, ta i Karlota ua uĩuti, uĩuti, nai dekan lekura ta ez geyo nere ilobarekin elkaĩtu.
- KAR. ¿Oĩenbesteko gaizkĩlia al naiz?
- AIT. Etzekiñat, bañan irekin dabilen ezkeru Mikela okeĩtzen ari den, etxeko esanari entzungoĩ egiten, ta danak lotsagabekeriz jaben.
- KAR. Bai ta Anjel'ĩ aĩpegi txaĩa jaĩtzen ta zuk egin nai dezun ezkontza okeĩtzen... ¿ez da ala, aitona?
- AIT. ¡Berĩtsuen neska!
- MIK. Berĩtsuagua zaude zu.
- AIT. Mikela gaizki esan den, ez nan izandu ta ez nan berĩtsua, ik itz egin azitzen nan... alperik bada ere.
- MIK. Ain alperik... aguĩ.

*(Karlota ta Mikela besua elkari emanaz juango dira aurrena Anjel'en aurrea ta gero aitona'ren gana abestu ta dantzatuaz «La Machicha» erderaz izendatzen dana).*

N) me hizo mi madre  
para casada  
porque de solterita  
no me falta nada.

- AIT. Ago ixilik... ta geldi ari, geldi...  
MIK. Eztet nai... (*irten abestuaz*).  
AIT. ¡Mikelai ¡Mikela!...

## AMAIKAGAREN IRUDIA

### XI

#### AITONA, ANJEL ta BITOR

- BIT. (*irtego da erdi jantzian*) ¡Mikela! nun da Mikela!  
AIT. Ara nun dijuan.  
BIT. (*eskaletara ojuka*) ¡Mikela! ¡Mikela!  
AIT. Alpeñik, alpeñik... berandu abil seme... berandu abil.  
BIT. Berandu ez, etoñi biarño du... (*leyotik ojuka*) ¡Mikela! atoñ  
azkar gora... badijua... zeñ... zeñ... aita'ri ori egiñ (*aotza  
altxiaz*). Mikela... ¡etzaiz geyo, egundo geyo, aita'ren  
etxian sañtuko!

*Auteneko egintzaren azkena,*



## BIGAREN EGINTZA

Martutene'ko zelayak  
Ezkeretan Kursaal-etxea,  
Atzian jolas lekuak,  
Aurian mayak, exer lekuak ta abar...

### LENBIZIKO IRUDIA

#### I

BONI ta PAKO *auñeko mai batean exeriyak. Pako lua ezin irukirik. Inguruko maietan jende geigo. Danak serbitzen Mutila.*

BONI Iruteñdiyak; laisteñ dituk emen.

PAKO. Etoñtzen ba-dira, bai.

BONI Kafłota etoñiko dek beñepin ta... Mikela ere bai. Barñ'ko sorokeriyak etzaizkiokan oraindik aztuko ta damutzeko garairik nola ez duben etoñiko dek.

PAKO Etxian galerazten ez baziotek.

BONI ¿Etxian noñk? amarena egiña zioñ ta añantzale etxietan nola eztiran gizasemiak ezeñtan sartzen... Gañeaz luma-tua zioñ eta egan bazekik.

PAKO Neska edera dek.

BONI Neria izango dek ba.

PAKO ¿Ta zeñ egin biał diyok bestiari?

BONI ¿Karmen'i?... utsa, laga, dijuala zigañeira; naiko denboran mantendu diat. Arako obia dek lotsagabe ura. (*Pako'k egiten du balantz aundibat*). ¿Zer abil mutil?

PAKO ¡E!... (*aoa zabalduaz*) au lua zekat,

BONI Ba, badakik, lota oyera.

PAKO Lua añña bazekat egañiya.

BONI Ba-dakak ba zenì eldua. (*Pako'k txalo joko du*). ¿Zeñ biał dek?

PAKO Zeñbeza.

BONI Emen eztakak ba.

PAKO Geyo oñdian.

- BONI Erantzak, erantzak bařengo sua itzaltzeko (*txalo beriz*).
- MUTIL (*Atzerotik ojuka*) Oř naiz.
- BONI ¿Zenbat biař dek?
- PAKO Asko, asko.
- MUTIL ¿Zeř dijua?
- BONI Beste ontzi aundi bat.
- MUTIL Beriala.
- BONI ¿*Tranbiak* zeř garaitan dira?
- MUTIL Ořdu eřdiro, oraintxen etoři da bat, oř datoř *jendia*.
- BONI ¿Oř ote da? (*altxa ta begiratuaz*).
- PAKO Azkař ekaři.
- BONI Erantzak bitařtian emen dagona.
- PAKO Ekatzak ba... asko e, asko (*basua eskuan dubela*).
- BONI To guztiya, to, irikizak abua... asetuko ote degu au...  
(*Bařendik ojuka*).
- KAR. ¡¡Boni!!
- BONI Kařlota ta Mikela.  
(*juango da beren gana baso zerbeza eskuan dubela*).
- PAKO Bota zak ba, bota... ¿oi nun da?... jori dek! nesken gana baso zeřbezarekin ta ni ezeř gabe, egařiyak iltzen.
- MUTIL Ara emen.
- PAKO Ala-re, ala-re. (*Mutilak beteko du basua*).

## BIGAŘEN IRUDIA

### II

#### Lenguak, MIKELA ta KARLOTA

(Sařtuko dira eskuitatik—Mikela basua eskuan dubela)

- BONI (*Ařtuaz Mutilak bete duen basua*) Tori zuri ete Karlota?
- PAKO ¡E! i ori neria dek, ekatzak...
- BONI Bete zak beste bat.
- MIK. {  
KAR. { Ařatsaldeon Pako.
- PAKO ¡Mikela ta Kařlota!... bai zueri ere... ¿etoři al zerate?
- KAR. Ba-diruri. (*Pako'k txalo juaz*).
- BONI ¿Zeř biař dek?



- PAKO Zerbeza geyo, egañiyak niok eta danentzat emen etziok.  
BONI Ase ari ba bein betiko.  
PAKO Ik ematen nakenakin...  
KAR. Nik emango dizut ¿nai dezu?  
MIK. Ta nik.  
BONI Batek, edo bestiak.  
PAKO ¡I muxur̄din! batek eta bestiak... biyak...  
MUT. ¿Zeñ biar̄ dezute?  
BONI Bar̄ika bat zerbeza oñentzat.  
PAKO Ta iretzako ez, betetako danak ar̄tzen dituk-eta; ekañi ontzi bat.  
MUT. ¿Aundi bat?  
BONI Bai.  
*(bitarte onetan bete dituzte neska'k beren basuak).*  
KAR. Neria auñena, tori.  
MIK. Tori neria-ere.  
PAKO Ezkeñ-eskubi ¡au mauka! biyak batian.  
BONI Bota zayozute burufik, premiya daka-ta esnatzeko.  
MIK. ¿Lua?  
BONI Oyeatzia aztu.  
PAKO *(Karlota'ri biurtuaz basua)* Batena... segi, beñiketan... eta bi... ¿ez aldago geyo?  
MUT. Ara emen.  
PAKO Gutxitxo oñdian.  
BONI Dana iretzat. Guazen Mikela aruntz ta geldi deiela bera danakin.  
MIK. Guazen ba Karlota.  
PAKO Obe... dana neretzat... obe...  
KAR. ¿Ez gero ito?  
PAKO Ez Mikela'rekin dantzán egin gabe.  
KAR. ¡Ja... jai!... ¿esnatu al zera?  
MIK. Oñtarako bai.  
BONI ¿Izango al da gauñ?  
MIK. Bai gure *tranbian* beñtan etoñi dira musikuak.  
KAR. Ta ayekin Tutulux ta Koipe ¡ori *broma* ekañi dute! Tutulux eñdipuñdi datoñ.  
BONI Loyola'ko oñdez onera, lapak jaterra, etoñiko dira; guk ere zerbait jan biar̄ degu.

PAKO Ori nere *kontu*, nik eskatuko det goguak ematen didan guztiya.

BONI Lapak beñepin gauñ jatia oi dan bezela.

KAR. Ta egaztiyak...

MIK. Ara, ara musika'ren otsa...

*entzungo da musika soñua ta sañtuko  
dira eskuitatik zalapartu aundiyan.*

## IRUGAÑEN IRUDIA

### III

#### Lenguak, TUTULUX, KOIPE

lanpeña saltzalia, ereslariak ta ondoren gizon ta emakumeak.

Tutulux da ikaragarizko gizona. Donostian  
Manix zan antzekoa. Koipe bakalu ezuña.

Danok abestuz ereslariak jotzen duten doñuan.

Erotu arte  
eldu-ta saltzan  
ibildu ko gera  
gauñ danok dantzan.

Zañ eta gaste  
neska ta mutil  
aberatz, beañtsu  
egikik nazpil.

TUTULUX *!Moso, makañoso, un upel de sidra!*

KOIPE Y otro upel de zerbeza.

MUT. ¡Ara emen ni! ¿zeñ dijuu?

LANP. SAL (*atze aldetik ojuka*) ¡Lan... peñak!

TUTULUX ¿Zeñ jango degu gauñ?

KOIPE Oraindik goiza dek.

LANP. SAL (*Tutulux en auñian*) ¡Lan... peñak!... Gastetxuak  
lanpeñak.

TUTULUX ¿Noizkuak dituzu? ¿juan dan urtekuak?

- LANP. Ez orixen, prexko, prexkuak, gauñ goixian. Igeldo pian ařapatuak.
- KOIKE Zaude ixilik, zure lanpeřnak otařian beřtan botatzen dute *kriya-ta*.
- LANP. ;Kontxo!, gizonen ateraldiya, etzera ni aña bustitzen.
- KOIKE ;Eudiyakin?
- LANP. Uř gaziyarekin.
- KOIKE Ezagun da bai, lepuan belařiyetaraño dakazu *křaka-ta*.
- LANP. (*Bana emanaz*) *Tira, tira... přoatu ia onak daudezen... ;lan... peřnak; (Boni ta laguna'ri) ;gastetxuak nai dituzute zuek ere?*
- TUTULUX ;Edeřak zioztik!... Danak gureztat.
- BONI Ta gureztat,... *pařte* gu ere.
- KOIKE Bai orixe... bañan gu ere bai gero oyekin dantzan.  
(*Kařlota ta Mikela gatik*)
- TUTULUX Guazen ara belařetara, an gařbituko degu otař guztiya.
- DANOK Guazen, guazen.
- BONI Musika ta guzti.
- TUTULUX Bai, bai, jodezatela... jo dezatela...
- KOIKE Tutulux eldu otařari.
- TUTULUX ;Altza, Koipe! ;eup!  
(*Sartutako eran juango dira ezkeřetatik. Tutulux ta Koipe otařarekin*).  
*Auřena ereslariak juaz, ta ondoren danok abestuaz iskanbila aundiyan.*
- DANOK *Abetuaz.*

Lanpeřna'k janaz  
lapak ere bai  
gauřko ařtsaldia  
juango da alai.

—  
Sagařdo, zerbeza  
ařdo ugari  
sabela jařtzagun  
bero ta guri.

(*Danak eskutatzeakoan*)



- KAR. Guazen gu ere.  
PAKO Eldu ba besotik.  
KAR. ¡Aupa! guazen Mikela.  
BONI Zuazte, au nerekin juango da.

## LAUGAREN IRUDIA

### IV

#### MIKELA ta BONI

- BONI ¿Guazen dantzara?  
MIK. (*gogo gutxiarekin*) Nai badezu.  
BONI ¿Ez daukazu gogorik?  
MIK. Ez askorik.  
BONI ¿Zeñ dezu ba?  
MIK. Bañt ezkerro, baña batez ere eguañdi ezkerro estakit zeñ geñtatzen zaidan ¡samin nago!  
BONI ¿Ni gatik? ¿ni al naiz samintasunez iluntzen dizkitzuna biyotza, arpegi edeñ ta begi zoragañi oyek?  
Ala balitz aitortu zazu Mikelatxo, ta iñor gizonek sortu ezditun alegiñak egingo ditut zu alaitzeko zu pozak ikusteko.  
Zurekin bat izanik bizi nai det, nere gogo ta anima, biotzeko asmo ta nai guztiyak zureakin bat egiñik, ta onela elkar maitatuaz zoriontzuak izango gera biyok, ni orain zure ondoan arkitzen naizen bezela ¡zoragarizko zoriontsu!  
MIK. ¿Zu ala zaude?  
BONI Ni, Mikelatxo, bai. Begira nazu begiyetara..... bañan ez oñela... auñez-auñe... bekokiya iguaz... zure begi beltz edeñ oyek erekiyaz, ikusi ditzatan beren bañendik zure biyotzeko asmo sakonenak.  
*(Mikelak begiyak itxi ta nega)*  
¿Negañ egiten dezu? ¿ez nazu entzun nai? ¿bañt-ko asmo guztiyak utzi ote dituzu? ¡Mikela!  
MIK. Ez Boni, esandakoan nago, ta itz oneri gogoñ euztearen-gatik arkitzen naiz orain bañengo nai-gabe onekin.

Baġt zurekin nintzan ama'ren baimenarekin, orain... bakaġik nago, danok auġez-auġe ditudala.

Nere aitona, aita, ta baita senaġgai eman nai ziaten Anjel ere jaġi zaizkit auġian eġeguz auġena, ta gogoġ eġi-  
*ġi*az gero, zuregana etoġtzia galerazi nayian. Aitak... aitak oju eġin dit leyotik, geyo, egundo geyo, ez naizela bere etxian saġtuko, neri, bere alaba bakaġari...

BONI *ġ*Aitak ori esan dizu? Gaizki, txit gaizki eġin du.

MIK. Nik biaġtu det.

BONI *ġ*Zeġkin? *ġ*gauġ onera etoġtziakin?

MIK. Bai, zure gana.

BONI *ġ*Zeġt zat naukate ba ni? *ġ*Anjel baġo gutxiyagotzat? *ġ*Ni aberatsa, itsas-ontzi, txalupa, bapore, tresna askoren jabia, ura aġa zurekin ibiltzeko ez naiz? *ġ*Zein da ori diyo-  
na? *ġ*ama? ez, nerekin batian baidago, *ġ*aġta? *ġ*zeġ daki aġek itsasuan aġantza egiten baizik, ta legoġian dagonian ta-berna zuluan ke-taġtian, ez sendi, ez alaba, ez emaste, iġoġt zat gogoatzen eztala suġut egiten besterik.

MIK. Nere aitak ez du tabeġnarako griġik.

BONI *ġ*Non uste dezu ba Anjel, gizon kiġten, itz gabeko oġek aġapatu duela bere alde jaġtzeko? *ġ*itsasuan?... ez... baso aġduaren auġian.

MIK. Aitona da nai dubena.

BONI *ġ*Aitona? oġtarako egokiyena... txanpon bat irabaziko ez du, ta etxera dirua eraman lezakena bota nai... *ġ*Mikelatxo! (*oso xamur*) utsi danok ta atoz nerekin.

Zure gurasuak ez dakite zeren jabe ziran ta bota eġin zaituzte etxetik, ba nik, pus katurik biyotza zure gauġko gertaera samiġ oġekin, ez naiz zu onġi ikusi aġtian gel-  
dituko.

Nik bilatuko dizut etxia, nik jaġiko dizut gelatxo bat, egundaġo ametzetan ezpada ikusi ez dezuna, ta au zu ta ni, ta ni ta zu, bat eġiġik biziko gera onġi, luzaro onġi...

MIK. (*Atzera eġiġaz*) Boni ez, ezin nezake... ezta ori neska eġkogayaren bidia... ez.

BONI *ġ*Gurasuak bota etzaituzte? zaude ba berak bila etoġi aġte, ta sinistra nazu, nerekin bazatoz askaġ dituzu ingu-  
ruan.



- MİK. Ez, ez...
- BONI Nik egin nezake zure aita bapore jabe... ama etxe jabe... zu aberatz, ni ta nere ontasun guztien jabe... jantzi edeñak txapel galantak, mai ona, jolasak, ibilera alayak, danak izango dituzu ta ezperik gabe, diru bila ibili gabe, zure ezku polit abek latztu gabe, lakañtu gabe...
- MİK. Etxera juan biar det.
- BONI ¿Galerazi eztizute?
- MİK. Bai bañan apalduko naiz, ta añtuko naute. Boni zeonek aita'ri itz egingo diozu ¿maite nazula esaten ez nazu? lagundu nazu ba erū au zuzentzen, gurasoakin aizkiratzen, ta oñduan ikusirik zure asmo zuzenak, gure alde jariko da aita, utsiko dit ibiltzen, ta beař bezela, nai badezu, zuria izango naiz.
- BONI Zure gurasuak ez dute gu apaltzerik *meresi*; berena da okeña, datozela ba.
- MİK. Mendekua ni naiz; alaba bai naiz.
- BONI Ta ayek gurasoak bai... ta ayek zuri erakutzī beař dizutenak... ez zuk ayeri...
- MİK. Boni nere aita ona da... nere aitona ere bai...
- BONI ¿Ni naiz oñduan txara?
- MİK. Ez diyot nik ori...

## BOSTGAREN IRUDIA

### V

#### Lenguak, PAKO, gero MUTIL

- PAKO ¡Au egañiya, ta lua!... ia., a a! (*aoa zabalduaz*).
- BONI Pako datoř, guazen.
- PAKO ¿Zeř oraindik emen? Karlota an dabil dantzan puskatzen jori zalapañta dago!
- BONI Orain guaz gu.
- PAKO Mikela, esana-esan, nik gauř zurekin dantza beař detala.  
(*Pako'ren laguntza atki nayian*)
- MİK. Guazen ba oñduan... atoz, biyoren eřdiyan juango naiz.
- PAKO Zaude puxkabat, eratian.



- BONI (*Asaŕe antzean*) Gero aŕte.  
MIK. Itxon zayogun, beriala datoŕ.  
BONI (*zakaŕ*) Ez, guazen.  
MIK. Zai gelditzen naiz.  
PAKO Bai, panpoxa, aguŕ (*muxu botiaz*).  
(*juaten dira biyak ezkeretatik*) Eztakit zeŕ dakaten nik  
baŕen onetan olako egaŕiya izateko.  
Eztet ba bakalu goŕdiñik edo saŕdin-zaŕik jan.  
(*txalo juaz*)  
MUT. ¿Zeŕ dijua?  
PAKO Ekaŕi nazu *limonada* bat.  
MUT. ¿Txikiya ala aundiya?  
PAKO Aundiya.  
MUT. Beriala; jai diramona izan, ezagun da, bai.  
PAKO Azkaŕ ibili.  
MUT. Banatoŕ aidian.  
PAKO Eran ta eran, ta alpeŕik, beti ao-legoŕa.

## SEIGAREN IRUDIA

### VI

#### PAKO, AITONA, ANJEL ta MUTIL

- ANJ. Iritxi gera. Emen izango da.  
AIT. Jaunak entzun deikela ta baita neri ere ¿neska gurega-  
natuko ote degu? ¿Nun gera? ¿zeŕ da etxe aundi ori zubi  
ayek, putsu oŕetan dagon txalup'ori? ¿Zeŕ jende oyen  
jolasak, musikak?... ¿beŕiro iñauterira al guaz?...  
Anjel ¿nun gaituk?  
ANJ. Esan dizut bat. Matutene'n gera.  
AIT. Matutene ezagutzen diat, bañan eztek au. Askotan izan  
nak Matutene'n bañan emen ez. Sagardua eratera etoŕtzen  
nukan... ez onera... onera ez... Katalintxo, Lazune, Aingelo,  
Tolozar non, dira?... ¿nora eraman dituzte emengo ba-  
seŕiyak...?  
ANJ. (*Eskuitara begira*) Beste aldeŕdiyan dira... begira zazu,  
ara oŕ nun daudezen.

ARR. Egiya, ikusten dizkiat. Lagunañte edeñak igarotako lekuak, baita ere ekañtako *merienda familiyarekin* janaz... Urte asko eztala, nere alaba ta bilobatxoarekin izan nukan emen, ez... emen ez... or... ta sagraño gozua eranaz igaro genikan añatsalde osua jolas edeñian.

Mikela ezukan gelditu batera ta bestera mitxirika-mariposa'ren atzetik.

Mazuztak bilatzen, mendi-marubiyak biltzen, ta aitona eroturik gora ta bera ura zaitzen.

Etzanda ere sayo aundi bat egin genikan kirkiñak aña-patzen....

¡Zoragañizko egunak, juan ziradenak ta geyo etoñiko eztiranak...! (*exeritzen da mañ baten auñian*)

ANJ. Oroimen aundiko lekuak dituzu abek.

MUT. ¿Zer biñ dezute?

ANJ. Ezeñ ez.

MUT. ¿Zerñtan zaudezte ba mayian?

ANJ. Neñatua datoñ-ta.

MUT. *Tranbian etoñtzia zenuten.... (Pako dago lotan. Ereñiko du Mutilak «limonada» botila ta gero esnatuko du Pako). Ara limonada...! entzun! ara emen limonada...*

PAKO ¿Zeñ... zeñ?

MUT. *Limonada... len eskatu nazuna....*

PAKO ¡A!... bota zazu baso-ta.

ANJ. Guazen aitona.

AIT. Ago Anjel, neñatua niok.

ANJ. Eztute emen lagatzen ezeñ añtu gabe egoten.

AIT. ¿Egotia ere galaziya al zioñ?... gu bezelakoentzat izango dek... guazemak...

ANJ. Añtu zagun bestela sagraño pixkabat.

AIT. ¿Izango alda?

ANJ. Bayetz uste det..

MUTIL Ezeñ biñ ezpadezute alde emendik.

ANJ. Ekañi zazu sagraño botila bat.

MUTIL Asturias'kua, Oyañzungua, Usuñbilkua.

AIT. Emengua... zeñbesteko sagrañdua guk eran?

MUTIL Oñduan Oyañzun... banatoñ beriala.

AIT. Oyarzungua esan dik ¿ez aldaba emen sagañdo'rik geyo soñtzen?

ANJ. Botiletan ez dute angua besterik irukiko.

AIT. Eztek ba kupelekua beziñ ona izango...

Datoñela azkar lenbailen biloba bifatu dezagur... ja!  
jori bula ta zalapañta!... ¿ez alda emen garizimarik?...

Anjel itxua niok ta eztiat ezeñ ezagutzen, bañan ik  
¿ikusten alde Mikela?... esan nazak... ¿oñ altzebiñek?...

ANJ. Begiyak botiaz egon añen ezte ikusten, bañan (BATBA-  
TEAN POZTUAZ) emen da. Karlota oñ dabil-ta.

AIT. ¿Karlota bai...? oñdek oñduan... guazemak...

ANJ. Zaude apur bat. Sagañdua ekartzian ta eratian.

AIT. Añazoi dek... tajuz asi beañdiagu... exerita egongo nak...  
ik begira zak.

MUTIL Ara sagañdua.

AIT. Anjel, atoñ... ekañ dik sagañdua.

*(Erekiko du mutiñak ta botako du basuetara)*

ANJ. ¿Zenbat da?

MUTIL Sei eñial.

AIT. ¿Zeñ esan dek?... ¿txopiñeko botiñla sei eñial?...

MUTIL ¡Zeñ txopin ta zeñ pitxar!...

Sei eñial da ta eman neri azkar ta kito... (berez). Nik  
diat kulpa añlote aberi *serbitziakin*.

AIT. Anjel etzakiyokela eman... goñde dezala beretzat... nik  
eztiat erango... ik ere ez... sagañdua eskatu diagu ta ori  
eztek izango sagañdua oñenbeste baliyo badu.

ANJ. Sagañdua da, bai.

MUTIL Ez, txanpain izango dek... beñiketa gutxi ta bota neri  
dirua.

ANJ. Emango dizut.

AIT. Eztiyok emango.

MUTIL ¿Zerñan eskatu dezute ba?

AIT. Ez jakiñian zenbatekua zan.

MUTIL Uñenako badakizu ba.

AIT. Bai zuk ete añetik esaten ikasiko dezu... guazemak  
Anjel.

MUTIL ¿Neri pagatu gabe?... ez ori... jagure zañpala!



ANJ. Zaude ixilik ta tori.

*(Dirua luzatuaz ta aitona tañtian sartuaz)*

AIT. Ez... ez...

PAKO ¿Zeñ dezute oñu oyekin?

MUTIL Zera, sagañdua iriki azi ta orain pagatu nai ez...

AIT. Eztet nik oñengatik sei eñialik emango.

MUTIL Biārko.

PAKO ¡Ai aitona! Okeñ etoñi zera zu, au ez da upelategiya.

MUTIL Botila irikita gero...

PAKO Ekañi nazak neri, nik erango diat. Aitona, eran zuk ere, nik pagatuko det.

AIT. Eskañikasko. gaitz egingo liake, ezta ori guretzako erariya.

MUTIL Ez, ez zuaz zu tabeña zulora, arako obia zaude.

AIT. Guazen emendik.

PAKO ¡Gizarajuak!

MUTIL ¡Lotsagabiak!

## ZAZPIGAREN IRUDIA

### VII

PAKO, MUTIL, TUTULUX, KOIPE, BONI, KARLOTA

Ereslariak, Lanpeña saltzalia ta diran guztiyak

TUTULUX *(Bañendik ojuka)* ¡Añee! ¡añee!

PAKO *(Altxa-ta ezkerera begira)* ¡Oi! Tutulux asto gañian.

MUTIL ¡Asto gaxua!

TUT. *(Beti bañendik)* ¡Añee!... ¡añee!...

PAKO ¡O! leñtu biañ du gañekuak azpiko astua.

TUT. ¡Añee... añee!... ¡ai... ai!... ¡izo!... ¡izo!... ¡izo!... ¡ai... ai!...

PAKO ¡Ai ama! botako dik Tutulux ankaz gora.

MUTIL ¡Antziak!!... ¿leñtu ote du? *(Juango da ikustera ta Pako exeriko da pañez. Bañenen Tutulux antzika ta danak ojuka)*

KOIPE *(Bañendik)*. Sila bat, sila bat. *(Eramango du Mutilak ta bereala ekañiko dute Tutulux silan etzanda Koipe, Karlota ta Mutila'ren añtian)*



KOIBE ¡Tutulux, Tutulux!

KAR. Uñ pixkabal.

KOIBE Zerbeza obe du.

KAR. Arpegira botatzeko da.

KOIBE Arpegira baño nayo du onek abora.

(*Tutulux ek erekitzen du aoo*)

PAKO Ara sagrañdua. Tutulux erantzak. (*Dana uztu*)

KOIBE Aixkiria etzaizu lañiyakin eztariya etxi...

PAKO Irikitzeko añako arantsak egin al dizkik.

TUT. ¡Asto zikiñ ura!

KOIBE Añek eztik kulpik, ik, eoñek. ¿Jañiko itzan ba asto txiki añen gañian? edeñki asko ekañi niok ni neriak.

KAR. Bai ni ere.

KOIBE Oñek zekan *pantaziya* danen buru zetoñelako ta... buruz eroridek.

TUT. Astua'k burua jetxi duelako.

KOIBE Ik geyo jetxi dek... luñeraño.

TUT. ¿Nun da astua?

KOIBE Aidian au juañ dek... jañek eramandu poza!

TUT. Ire gatik dek; dantzana alako edeñki gebiltzala gogoatu zaik asto gañian etoñtzia, ta tó...

KOIBE Gu edeñki etoñi gaituk. Egoki izateko ik, eoñek, arñtu biar ukan asto txiki ura gañian.

TUT. Emango diat begiondako bat ixiltzen ezpaiz.

KOIBE Ezkeñekin edo eskubiyakin.

TUT. Zaplateko batekin kenduko diat ilian dakaken koipe guztiya.

KOIBE (*Buruko oñaskera erakutziaz*). *Kosmetiko Ideal*, dos pe-setas la koskora, to, egin akiyok usai.

TUT. (*Buruan jo nayian altxata*). To, egin akiyok azkure.

DANOK ¡E! e! Sendatu da, sendatu da!...

KAR. Koipe'ren buruko koipia'kin...

KOIBE Guazen beñiro dantzara. (*Danoz algaraz aldi batean*).

PAKO Emen bertan; dotoñela *musika* onera.

TUT. Ta datoñela Mikela'ere nik añekin dantzatu biar det.

KAR. Boni'k uzten badizu. Geitxo dabilta elkañekin. Eztakit orain ere nun diran.

TUT. Oñduan zurekin ba.

KAR. ¡A, bai! oñtakoxe niok. Dantza zailia nai badezu lanpeña saltzaliarekin, an datoñ.

TUT. Zuk baño obeto daki ba.

KAR. Obe.

KOIKE Emen datoz danak... leku leku... ementxen dantzatuko gera... (*Etoñiko dira ereslariak ta jariko dira antzian*)

TUT. ¿Zeñ nai dezute jotsia<sup>2</sup> vals, xotis, polka, abanera, mazurka....

KOIKE Utzi akiyotek ik geldirik. Jo dezatela nai dutena.

TUT. Ez, nik eramango diat *konpasa*.

PAKO ¡Tutulux *diretore!*

KAR. Norekin dantzaturik estulako.

TUT. Beñiketa gutxi, ta guazen.

Ya mutilak, jo zagun *el xotis del disloque*....

Zalapaña geyena ta geñiya ta lepua geyena okeñtzen duten neska-mutilari, bost duro.

KOIKE ¡Ja, ja, ja... etziok gaizki.

KAR. ¿Ta geldiyena ibiltzen diranari?

TUT. *Paper lija* puzkabat, elkari arpegiyan utzitzen diyoten kraka garbitzeko.

(DANOK ALGARA. Joko dute ereslariak ta asiko dira danok dantzan. Geroxiako sartuko dira Boni ta Mikela; oñduan utziyaz Tutulux'ek eres-neuñiya eramatez, juango da berengana ta txapela eskuan duela eskatuko diyo Mikela'ri dantza aldibat. Joango da Boni mayera, zerbeza eratera, ta ekingo diyote dantzan Mikela ta Tutulux beste danen tartian.



## ZORTZIGAREN IRUDIA

### VIII

#### LENGUAK AITON JOXEPE,-ANJEL bukaeran bi eřtzain-poliziko edo mikelete

Juango dira biyak Mikela'ren gana. Tutulux asiko da mařuaz dantzan galerazten diotelako ta ereslariak ixilduko dira

AITONA ¡Mikela! ¡Mikela!

TUT. E! e! e! Laga guri pakian.

MIK. Aitona, ¿zeř zabilta emen?

AIT. Ire bila, leku abetatik eraman nayian.

MIK. Zuazte emendik, ez nijua.

TUT. Onduena nebilenian agure zařak neska kendu ¡Tutulux, txautu aute!

AIT. Mikela guazeman, Anjel ta ni ire bila etoři gaitun.

BONI ¿Aratsalde eřdiyan zatoz Mikela'ren bila? Utzi zayozu orain, bere garayian juango da.

MIK. Zuazte etoři zeraten bidean. ¿Nola naidezute orain juatia?

AIT. Gaitzago izango den gabian.

BONI Gabian neonek eramango det.

ANJEL. ¿Zein zera zu oři lagun egiteko?

BONI ¿Ta zu zein zera neri ori esateko?

ANJEL. Neska ořekin zuk baņo zeř-ikusi geyo dubena.

BONI Bai nai.

TUT. ¡E, e! Eman zalapařta gutxi, beřiketara *kampora*, emen dantzatu egin biar da, ala... ala... guazen beriro.

ANJEL. Utzi gaituzu pakian.

MIK. Atoz onera Boni. (*Ezkeřera eramanař*).

(*Jariko dira bi alditan ezkeřetan Mikela, Boni, Anjel ta Aitona Eskubitan gaņeakuak*).

KAR. Eskaņi zayozu aguria'ri lanpeřna saltzalia, *pareja* polita egingo dute biyak.

TUT. Izan ere. Zu, lanpernera, atoz onera. (*Ez kutik elduta eramango du aitona' ren gana*). Aitona, ara zuretzat dantzako lagun polita.

AIT. Eztet nik oren biarik.

LANP. Ezta nik ere zureik... (*Tutulux' eri*).

¿Zer uste dezu zuk agure zaipal orentzat nagola ni?

KOIKE Emakumia, lanpernak zure otarian egiten dufen aña urte ditu orek, geyo ez.

LANP. ¡A la txanpaina zuaz!...

AIT. Mikela atoñ; etzanela alde egin, atoñ Anjel ta nerekin bitz egitera.

Entzun itzin bitz, entzun itzin.

Ta zu galaya etzazula nere biloba eskutatu, utzi zayozu nigan etoñzen, beraren bila bai-natoñ Donosti'tik oñez ta.

BONI Alpeñik etoñi zera ba, orain eztizu entzungo.

AIT. Entzungo dit bai. Mikela badakin nola gelditu dan aita. Zeñ egunak datorkigun pakia jartzen ezpaden etxian.

MIK. Ni ez nijua ba orain.

AIT. Bañan neska... (*Jañaituko dute izketan*).

KAR. ¿Egiñ al dezu?

KOIKE Bai, ta dotoria ara. *Erakutziko du izparingi edo periodiko-paper batekin egin duben gixon bat. Karlatak oñatz batekin ipiñiko diyo Aitonari bizkañetik zintzilik*.

KAR. Nai ezpadu lanpeña saltzaliarekin, onekin dantzatu biañko du ba. Ekatzu, oñatz batekin jañiko diyot nik...

TUT. Jañi, jañi, bitañtian musikuak bilduko ditut nik... ala, ala... etoñi danok onera... musika, musika...

ANJEL (*Karlota' k zer egin duen ikusi-ta emango diyo bultzaldi bat ta botako du Koipe' ren gañera*). ¿Zeñ ari aiz or...?

KAR. ¡¡Ai!!

KOIKE ¡E! ¡astua!... neska bota duen itxuran.

BONI ¿Emakumiak jotzeko aña bai altzera?

ANJEL Eztet jo, bultz egiñ diyot aitona danen pañagari jañi nai zobelako.

KAR. ¡Jo egin nau!

DANOK Jo egin du jo... zakaña, astua... kobañde ustela...

AIT. ¿Zeñ egin dek?

ANJEL Ixiltzen ez padiña puzkatu bat-edoenbat auzena neska zirtzil ori dala...

DANOK ¡E! ¡e!...

MUTIL ¿Beñiro emen zera?... ¿ta eriyetan?

BONI Biyotz gabeko gizon oñek neska jo eztu ba.

ANJEL Zuk bezin aundiya badet... oñegatik galerazi nai niyon egin nai zubena.

DANOK Bota, bota emendek... ala... ala...

MUTIL Ala oñikan, len ere esan dizut eztala au zuben lekua.

DANOK Ala, ala... ospa, ospa...

ANJEL Ia noñk ikutzen nauen ni...

(*Boni'k ekariko ditu bi ertzain «poliziyako», edo bi mikelete*).

BONI Au da.

ERTZ. Atoz gurekin.

ANJEL ¿Ni?

ERTZ. Atoz, ta ixilik... bestela ainbat okeño zuretzat.

DANOK ¡Ala, ala, alde emendik, zañtzazute itzalian!

BONI Erakutzi zeñ dan emakumeak jotzia.

ANJEL Ez naiz juango.

ERTZ. Guazen ixilik...

AIT. Ua, ua Anjel obe dek ixilik alde egin, ni ere ire ondoren niak. (*Juango da bien-erñian ta geldituko dira danak iseka txistuka ta ojuka Aitonak egingo du azkeneko alegiña, bere iloba eramateko bañan añtuko dute danok erñiyan ta auzen giza asiko dira «a la kinkirñnera»*). Mikela... guazeman, guazeman elkañekin... guazeman.

TUT. ¡Musika! ¡musika!... ala, lanpeñnera, eldu aguriari... zu aguretñua dantza emen.

AIT. Laga nazute neri pakian... Mikela atoñ...

TUT. ¿Eztezu nai?... eldu danok eskutik... guazen koruan.

BONI Danok, danok... Mikela zu ere bai.

MIK. Ni ez.

BONI (*Zakar*). Zu, ta danok. (*Musikak joko du «alakinkirñnera» ta ekingo diyote danak abestuz ta jiraka-Aitona egongo da auzena begiyak besuakin estalita, ta gero ikusirik bere biloba ere soka dala, juango da bera gana. Mikela'k etengo du soka ta igaz egingo du ezkeretara Aitona ondoren dubela*).



- DAN. A la Kinkiñinera  
a la zanbrunera  
aiton zañak biloba  
eraman nai dubela...
- AIT. ¡Mikela atoñ onera...!
- MIK. ¡Ai! (*Elduko diyo besotik*)
- AIT. Onez nai ezpaden txañez. sutik nai ezpaden añastaka,  
bañan biyok juango gaitun...; atoñ etxera, atoñ... (*tiraka*).
- BONI (*Albotik ixilka*). Nerekin, edo oñekin betiko.
- AIT. Laga itzin leku abek, lagun abek... ta guazeman...
- KAR. (*Bonik bezela ixilka*). Sotora, trezak beitatzero... etxera  
añai zakañak jatera... ankutzik sañdin saltzen ibiltzero...  
goziak egotera... ¡bizikera edeñ!
- MIK. (*Neke aundiz*). Utzi nazu, ez nijua...
- AIT. ¿Nik i emen utzi?...ez...
- MIK. Bai aitona utzi neri...
- BONI Biarko. (*Elduko diyo bizkañetik ta tirako diyo atzero  
Mikela'k auñera egiten duben unean beñtan. Azkatuko da  
oñduan aitona ta eroñiko da zeñaldo luñera*).
- MIK. ¡Ai!
- AIT. Mikela, aitona bota den... luñera bota den... ¡Deun Jose ne-  
ria! biloba galdu zait... samintazun onek ilko nau... Anjel,  
Anjel... itxon, itxon... irekin juañ nai diat... igasi... leku abe-  
tatik... (*Atzian eskutatzeakuañ*). ¡Mikela... aguñ...

### *Bigařen egintzaren azkena*

## IRUGAREN EGINTZA

Eraz anfolatutako gela bat. Iru ate. Atzekoa sañerakoa, ezkeretako Mikela'ren gelarako, ta eskuitakoa etxe bañurako. Atzean, esku aldera, maitxo bat, exer lekuak...

### LENBIZIKO IRUDIA

#### I

JOXEPATXO, gero BONI

JOXE. (*Ezkeretako atetik irtenik*). Gaxua, bakañ-bakañik dago. Beti Boni'ren sai, ta Boni'rik ageñtzen etzayola bai dira iru egun, eta zeñ egun? onenak, alayenak, gastientzat ederenak, iñauteriko egunak.

BONI (*Biatza abuan dakala, ta anka puntetan*). Joxepatxo...

JOXE. ¿Oñ Boni, zu al zera?

BONI. Ixilik... ¿etxian al da Mikela?

JOXE. Oyian. Orain esan dit beñiro zure biñ juateko.

BONI. ¿Gaizki al dago?

JOXE. Gaizki, gaizki... badakizu.

BONI. Bai.

JOXE. Gaitzik aundiyena, zu ez ikustia du. Auñenetan onera ekañ zenduenian alkañekin ziñaten beti... gero... lana ta,, zeñ egin batzuegatik etziñan egunero etoñtzen; ta orain... iru egun badira etzerala ageñtu eta zeñ egunak! onenak...

BONI. Egiya da.

JOXE. Gauñko egun guztiya negañez darama, iñauteriko iru egunetan ere ala egon da. Gogoratzen zaizka juan dan uñteko egunak, gurasoen etxia, zurekin onera etoñ zan gaba ta ikusirik oraingo bere bakañtasuna iruditzen zayo zuk gutxiyago maite dezula, ta negañ egiten du.

BONI. Arazoi du.

JOXE. Nik ixildu azitzen det. Esaten diyot eztiozula biderik eman oñela jañtzeko; beti beria izango zerala, bere onduan egonakin lanik eztakazula egiterik, gauza askori auñ eman biar diyozulako: etoñiko zerala, ta onela... ¿ez al det ongi egiten?



BONI Ez.

JOXE. ¿Zeñ ba? ¿Zeñ nai dezu esatia?

BONI Ez naizela geyo etoñiko.

JOXE. ¡E...!

BONI Entzun dezuna. Bukatu egin biar det.

JOXE. ¿Azpeñtu al zaitu?

BONI Bai.

JOXE. Mikelatxo gaxua, onaskoa daba..

BONI Onegiya, bestela aspaldi aztuta neukan.. bañan orain azkendu biar det. Josepatxo ezkontzen naiz, ta onekin dakaten korapilua eten biar det.

JOXE. ¡Ai, ai, ai...! ¡Beste baten kutiziya soñtu zaizu...! Karnaballetako beste aixkide enbat.

BONI Ez, ez, egiyetan da oraingua.

JOXE. Ala zan azkenekua ere.

BONI (*Asañe*). Azkenekua edo oraingua, egiya dan zuri ezeñ eztizu. Mikela'rekin bukatzera noala jakitia naikua dezu, gela abek libre izango dituzula ere bai. Orain arte ondo oñdaindu dizkitzut lan guztiyak, Mikela'gandik alde egiten, au bere gurasoengana, al bada, eramaten laguntzen banazu, obe izango da zuretzat.. beztela, emanak eman, arñtuak arñtu, ta kito... oñ konpon.

JOXE. (*Lari*). Ez, ez, ez, Boni, badakizu zuk agindutakuak egiteko *pronto* nagola beti..

BONI Orain arte bai.

JOXE. Orain ere... ala egin biarño.. Mikelatxo gaxua.. maite nuben ba...; ain neska polita da... bañan..

BONI Ola konponduko gera. Orain kayera noa, bapore bat oraindik etzait etoñi, ta ikusi nai det ezeñ badakaren. Gero etoñiko naiz, ta zuk bitarñian, egokierik badezu, badakizu, zeñ egin.

JOXE. Ez da lan eñaza bañan.. zeñ egingo da ba.

BONI Gero arte.



## BIGAREN IRUDIA

### II

#### LENGUAK eta MIKELA

- MIK. (*Irtengo da etxeko jantzi batekin*). Nola, Boni, ñni ikusi gabe zuaz?
- BONI Esan dit lotan zeundela ta etzindutan esnatu nai.
- MIK. Aitzeki txikiya soñtu dezu.
- BONI Beriala etoñiko nintzan.
- MIK. Larunbatian ori bera esan zidazun. Atoz auñera gizona... Joxepatxo, zuaz zu bañuñ... (*Joxepa juan*) exeri zaitia. (*Biyak exeri. Boni gogo txarrez*). Boni, eztakit zeñ arkitzen detan zukan, etzaitut ikusten len bezela pozik, nerekin egon nairik.
- BONI (*Bizi ta zakar*). Ezin detanian, ezingo naiz etoñi.
- MIK. (*Oso baretsu*). Aldezunian ere ez. Alperñik ukatuko nazu aspalditik bai natoñ esagutuaz, zure ni ganako oztasuna, ta egun abetako bakañdadian gauza asko bururatu zaizkit eta asko ikasi det.
- BONI ¡Ba! Sendatzian danak aztuko zaizkitzu. ¿Nola nai zenuen gaxo zeundela zure bila etoñtzia?
- MIK. ¿Ta ikustera ere ez? (*Begirada zoñotz bat egiñaz*). Gauñ urte bete alkañganatu giñan ta asiera eman geniyon bizi-modu oneri. Nola zureganatu ninduzun ondo dakizu. Gurasoen etxia galdu nuen, aiton gizajua Matuteneko geñtaera ikañgañi ayekin gaxotu, ta iru egun bañu il zan, ni ikusi gabe, añen asko beragana juateko egin bazituen ere... ez bai ninduzun utzi...
- BONI Zaude ixilik ¡zeñtarako beñitu atsegiñ ez dana!
- MIK. (*Bizi*). Zuri gogorazitzeko. Neri etzaizkik aztutzen, zuri bai; ta egun oyeekin batian nai dizkitzut gogoratu zuk neri agindu, eskañi ta opa zizkiatzun ontasun guztiyak. Ni dana zuria izango nintzan, zu guztiya neria, ta ni ezik nere gurasoak, senidiak, danak ondo jañi biar zenituen.
- BONI Nik ezingo nizun oñelako gauzik agindu, ¿Rotxil naizela uste al dezu?

- MIK. Agintzen bai, ematen ez.
- BONI Ba, ba. Jařdun au guztiya dirua eskatzeko izando da.
- MIK. (*Bizi*). Ez, diru bila ez nabil, ta ez nazu ez poztuko ta ez atsegabetuko emanakin ala ukatzeakin. Ez, nik zu nai zaitut, zure maitasuna, zure niganako gogua nai det. Boni, nik nai zaitut len esagutu zindutan bezela, ta ořtaraکو naukazu ni emen oso-osorik zuretzat.
- BONI Ni lengua naiz, betikua.
- MIK. Neretzako orain etzera lengua.
- BONI Baita.
- MIK. Ořduan nik etzindutan esagutzen.
- BONI Baliteke.
- MIK. (*Legor ta samin*). Ařazoi dezu... ala da. Itz egin zagun ba.
- BONI Orain ez, gero. (*Altxiaz*).
- MIK. Orain beřtan nai det.
- BONI Orain ez. Kayera noa, itsaso izugarıya dago, ekaitza badatoř ta oraındik bi bapore palta dira, neria. Kosme'k dabilkiyena, ta zure aitarena.
- MIK. ¿Nere aita ere bai?
- BONI Bai, bařan onezkero beřtan dira, beste guztiyak aspaldi sařtu ziran ta.
- MIK. ¿Ořduan etořiko zera?
- BONI Bazkaltzera; ala beta geyago izango degu itz egiteko. Ekaři zazu aldamentetik biyontzat bazkariya.
- MIK. Ondo da.
- BONI Gero ařte, ekaři bazkari goxua, ta jaři zuk ařpegi ařgiya.
- MIK. Ni ařkituko nazu zerořek nai nazun bezela.
- BONI Orduan parez.
- MIK. Ez genduke egiz egingo. Gero ařte. (*İřten Boni*).

## IRUGAŘEN IRUDIA

### III

#### MIKELA ta JOXEPATXO

- MIK. (*Eskubitako gela erekiyaz*). Joxepatxo, atoz.
- JOXE. ¿Juan alda Boni?
- MIK. Bai; iřten biař dezu. (*Exeriko da mayian, idatziko du pa-*



- peř bat eta emanaz*). Eraman zazu au aldameneko ostatura. Neroni juango nintzake bañan ez naiz ongi ařkitzen.
- JOXE. Ez, sinisten del. Egualdi abekin ez da gořputza *santusantua* egoten; ara neroni ere, ez nabil batere ondo.
- MIK. Ez, ez, ezta egualdiyena.
- JOXE. Ala uste nuben ba, ez litzake ařitzekua izango, noiz otza, noiz berua, ego-aizia ta ipařa baia bestiaren ondoren dabilta... orain ere badakař, badakař gogořa, joko du, aizia asi da.
- MIK. Ainbat okeřo.
- JOXE. Dana dago orain txartua; eguldiyak ere eztira len bezelakoak, dana okeřtua dago... ori da nik beti esaten detana ¡A! gure gaste *denboran*, besterik zan; neguan otza, bai egiya, bañan udaran berua, ta ez orain bezela noiz nai berua, noiz nai otza. Ořegatik ořenbeste jende gaxotzen da, ta zu ere bai... (*Mikela'k buruaz ezetz*) bai... bai...
- MIK. Ezetz Joxepa.
- JOXE. Begira zazu, nik esagutu ditut urtiak, an miřa ta...
- MIK. Betikua, etzait ixilduko. Joxepatxo eramane zazu ori ostatura ta gero juan bial dezu Elizara.
- JOXE. ¿Elizara?
- MIK. ¿Esagutzen al dezu Don Ramon apaiza?
- JOXE. Noletan ez, asko...
- MIK. ¿Bai, e?
- JOXE. ¡Ui! besterik ez, eřitařa da ta; ori da Motrikuařa. Oren aita zan *botikayua*, ta ezkondu zan...
- MIK. (*Bizi*). Bai, bere emastiarekin, badakit.
- JOXE. Ez, alařgun batekin, alařgun ori zan...
- MIK. (*Altxa ta juanaz*). (Erotuko nau ta neroni nua).
- JOXE. ¿Nora zuaz?
- MIK. Kalera.
- JOXE. Ez orixen, etzera irtengo ořegatik, ni juango naiz.
- MIK. Zuaz ba azkař.
- JOXE. Bañan nola juango naiz ezpanazu esan zeř esan bial diyotan.
- MIK. Ez nazulako utzi, gaste denborako gauzetara juan zera ta.
- JOXE. ¡Ain xamuřak dira oroimen oyek! Ni, Mikela, zu bezela gastia izana naiz ja! ura sasoya! Senař gayak inguruan pařa-pařa ibiltzen zizaizkitan.



- MIK. ¡Beriz!... Begira Joxepa zuaz beriala emendik zure gelara edo kalera, nai dezun lekura, bañan zuaz.
- JOXE. Apaizaren gana, ta ostatura... banua. (*ate onduan biurtuaz*). ¡A... bañan zeñ esan biar diyot apaiza'ri!
- MIK. Etzi goizian zazpiyetan meza bat ateratzeko.
- JOXE. (*Poliki, poliki, aurreatuaz*). Etzi, etzi... ¿zeñ da etzi?
- MIK. Ezeñ ez.
- JOXE. Etzi da... ostirala... garizimako aūfeneko ostirala.. ta...
- MIK. Zuaz emakumia.
- JOXE. Da...
- MIK. Da, nere aitona ildako eguna.
- JOXE. ¡Izan ere! Burua arintzen ari zait. Neri ori gogoatu ez... bai, etzi... etzi... ¡gizarajua! ura bai zala gizon ona, elizkoya, zintzua... Nere senařaren lagun aundiya zan. ¡A! ¡penak, penak il zuten gizarajua!
- MIK. Bai ta zure senařa pozak.
- JOXE. Bai pozak, pozak.
- MIK. (Zure ondotik alde egiten zuelako).
- JOXE. Semia soldadutzatik libratu zan pozian egin genduen apari-merendu bat, ta gizarajua, pařez zeola juan zitzayon okeřeko estařira ezur bat ta ito egin zan... ¡gizarajua!... aitatzen detan bakoitzian negařa etořtzen zait... inere Kelemente gizajua!
- MIK. ¿Zeñ orain negař?
- JOXE. Gizon guxi dira alakuak, nere Kelemente bezelakuak. ¡A! zurekin dabilen Boni alakua izango balitz beste kukuřukurik joko zenduko zuk ere.
- MIK. (Beřitu nazu nere bařen nekea).
- JOXE. Gaixtua, bañan txit gaixtua izango da neri burura sartu zaitena baldin badabilki... Ori ezta gizon biar bezelakuak egiten dubena... bañan geřtatzen dira... geřtatzen dira.
- MIK. (*Atsegabez*). Aski dezu, zuaz ixilik.
- JOXE. Banua, banua, bařkatu... nere Kelemente bezelakuak gutxi, ta au Boni... (*Tximista ta ondoren turmoya*). ¡Oi! ¿zeñtzan?... ¿tximista?... Aitaren ta semiaren... bai... ara tuřmoya.
- MIK. Ekaitza, ta nere aita itsasuan ¿sartu ote da?
- JOXE. ¡Ai, ai!... Aiziak ori soñua, ta itsasuak ori ořua. (*Entzungo da kristal puzkatuen ofs aundi bat*). ¡Ara, leyo enbat puz-

- katu da... ¿neria ote da? (*Juango da pizkoñ ezkubita ko gelara*).
- MIK. Ezta gutxiyotako atera duen aiziarekin... beste tximista... gogoña datoñ, ikaratzen naiz...
- JOXE. (*Beñiro sartuaz*). Ala're, ala're...
- MIK. ¿Etxekua al zan?
- JOXE. Inguruan, baño gure etxian ez. Eudiya azi baño lenago banijua azkañ-azkañ.
- MIK. Beñiketa gutxi birian.
- JOXE. Eztet iñor topatuko.
- MIK. Bai, obe.

## LAUGAREN IRUDIA

### IV

MIKELA ta bañendik Neska bat.

MIK. (*Leyotik begira*). ¡Ori oñua dauka itsasuak! ¡Ori soñua aiziak!... (*Tximista*) ¡Ai! uste nuen gañian zala. ¡Zeñ egun jañtzen ari dan! ¿Ta nere aita etxeratu ote da? ¿Itsasuan ote dabil oraindik? ¡Jauna, Jaungoiko aundiya! biañian añkitzen bada lagun egiyozu. Nere aita da, ta bere gandik alde eginda egon añen badakizu maite detala. (*Entzungo da turmoi soñu aundi bat ta gero ixil aldi batian abestuko du eskaletan neshatilatxo batek auñenengo egintzan bezela*).

NESKA BAT (*Bañendik*). No me izo mi madre para casada...

MIK. Gauñ urtebete aitonaren auñian nik abestu nuen kanta ioroimen txañekua! (*Otoiz egiñaz*) Ama laztana, zeruko Ama, itzuli egitzatza gugan zure begi erukitsu oyek,

NESKA (*Bañendik*). Porque de solterita no me falta nada...

(*Jaraitzen da abestuaz*).

MIK. ¡Neska gaxua! Asi dan lagunarekin okeñtu biañ du, ¡A! ¡Lagun txañ batek egiten duen kaltia! (*Eskaletako atera juan ta ojuka*). Kandida, Kandida.



## BOSTGAREN IRUDIA

### V

MIKELA, PAKO, BONI

PAKO ¿Nori ots egiten diyozu?

MIK. ¡Oí, zu! ¿Orain atera duen aiziak bota al zaitu onera?

PAKO Aiziak ez, Boni'k bai, onek nakañ.

BONI Gurekin bazkaltzera dakañ.

MIK. Zeñtarako eztirazu lenago esan, birentzako bakarrik eskatu det.

BONI Joxepatxo oñ ikusi degu ta esan diyogu iruentzat ekañtzeko.

MIK. ¡A! Poztutzen nazu Pako emen ikusiyakin, aspaldiyan etziñan etoñi.

PAKO Badakizu galerazten detan lekuan ez naizela ni ibiltzen.

MIK. Zuk ezik oñek ere aspaldiyan galerazi gutxi egin dezute

PAKO Ori iretzat ukan.

BONI Ba.

MIK. Zaudezte pixkabat, zeñbait jantzi ta emen naiz beriala.

PAKO Neregatik ez, ondo zaude oñela.

BONI Zuaz, zuaz, bakarrik egon bíañ degu. (*Mikela'k Boni'ri begirada samín ba, ta gero biurtu ta irten*).

## SEIGAREN IRUDIA

### VI

BONI ta PAKO.

PAKO Boni ¿zeñ esan diyok? ¿Zeñ abil i gauñ? Zeñtara atoñ onera? ¿Zeñtara nakarkit? ¿Zeñ egin bíañ diagu gauñ emen? Burua puzkatu añen etziot tajurik arkitzen ik gauñ egiten dekanari. Neska onen aita'ren baporía añoketara datoñela esan ditek amabi gizon bañenen ditula, ta ik laguntza eman bíañian ukatu ta galazi egin diyok Kosme'ri ire baporiarekin gizon ayek salbatzera juatia.



- Kai guztiyan ikařagařizko jařduna utzi dek ta ala ere onera atoř, bere alabarengana. ¿Zeřtara? ¿Boni zeřtara?
- BONI Etzakela ořenbeste galdera egin. Lagundu nazak, bařno ixilik.
- PAKO ¿Zeřtan?
- BONI Mikela'rekin asařetzen.
- PAKO ¿Zeř diyok? i erotu egin aiz.
- BONI Ez, entzun nazak. ¿Badakik nola Anastasio etxegilearen alabarekin nabilen...?
- PAKO Bai, ta etzekiat zeř ařkitu diyokan Dominga'ri, bařan ikusteat arekin.
- BONI ¿Zeř? dirua. Pako, gaizki nebilek, gastu aundiya zekat, neskak, jokuak, suřutak, asko eraman ziatek; irabaziyak beriz txikiyak ta batengatik ta bestiengatik txit erori nak ta ařdipat gabe gelditzeko zoriyan niok. Ořegatik nebilek neska ořen atzetik, ta ořetxegatik ezkonduko nak.
- PAKO Ta ořetarako galazten dik Mikela'k.
- BONI Asko, egun bat geyoan ezin jařaitu nezakek berarekin. Anastasio'k bazekik ta esantziak traba ori auzi ařtian ez-tula nai bere alabaren gana juaterik. Mikela'kikua gauř beřtan egin biař diat. ¿Ikusten alde orain zeřgatik ukatu detan baporía? Eman banuen Donosti gustiyak jakingo zikan ta nere aitagiyařeba-gayak etzikan sinistuko kupituta eman nuenik. Ukatu detala ere jakingo dik biyař eři danak, gaizki itz egingo ditek, bařan nik nai ditutenak ikusiko ditek abekin bukatu detala betiko.
- PAKO Entzuteat, ta zenbat eta geyo entzun geyo ařitzen nak ikusirik iri ondo datořkikena egiteařen eztekala begira-tzen zeřnai dolořkeriri. Utsi nai dek kalia, ainbeste maite ukala esanaz bizi-modu txarıan jaři ukan neska; aiztiyan ukatu dek baporía, ta utsi dituk kai gařian nega-řez ainbeste andre ta... gizon, ta iri ondo datořkikelako gauza egoki bat balitz bezela guztiya ařkitzen dek. Boni eztek ik biyotzik edo eztek entzuten zeř esaten dikan ire bařenak.
- BONI Etzekiak bařenak, bařan ik esaten nazkikan edeřak aitzen dizkiat. Ez nikan uste.
- PAKO ¿Zeř nai ukan ba?

BONI ¿Zeñ? Laguntzia. Pako añazoi dek, Mikela txit ona dek, Anastasio'ren alabak baño askoz geyo baliyo dik, bañan nik dirua biar diat. Mikela on utza dek, ona dalako etze-kiat nola utzi, lotsage bat izan bazan aspaldi aztuta nio-kan. Esan dek, gauza egoki bat balitz bezela arkitzen detala guztiya; eztiat egoki arkitzen nik gauñ kayian egin detana, bañan ¡zeñ nai dek! pozak niok egokiera ori gauñ ageñtu zaidalako. Jakiten dubenian, txit asañetuko dek ¿ta noñk zekik aita'ren eixera ez ote dan juango?... ori naiko nitek.

PAKO ¡Oñ konpon Boni! Egintzak nai dekana, ni bania.

BONI Bazkaldu zak emen.

PAKO Ez. Eztiak Mikela'ren aurian egon nai, eztiat negañez iku-si nai, bere alde aterako nak ta okeñago izango dek.

BONI Egintzak nai dekana.

PAKO Juan. (*Irten*).

## ZAZPIGAÑEN IRUDIA

### VII

BONI, gero JOXEPATXO.—Bañendik Andre bat.

(*Eseri. Zigaño bat atera ta piztu. Dana txit astiro Eskaletan zarata aundiya*).

BONI ¿Zeñ oju dira oyek? (*Atzeko atera juanaz*). Joxepatxo da mañuaz... geyo ere ba-dira... ¿Zeñ diyote?

ANDRE BAT (*Bañendik*). Baporía, baporía ukatu tirilas alu oñek.

BONI (*Auñeatuaz pañ iriyan*). Estakit ayek itsasuan, bañan ni legoñian gaizki ibili biara naiz. ¡Ba! ¡Emakumien beñiketak! ¡Legoñeko ekaitzak! Zarata aundiyaekin etoñi añen ez diate ikarik ematen. Bula puskabat... ¡Turmoya! Bi edo iru itz zoñotz... ¡Tximistak! Malko batzubek... ¡Eudi pixkabat Ta oñdoren eguzkiya bere uñezko printz edeñakin.

JOXE. (*Atetik ojuka*). Boni, Boni.

BONI ¿Zeñ biar ote du soñgiñ onek?

JOXE. Kosme'k zure baporeko patroyak, bialtzen nau. Badakizu Kosme nere iloba dala.

BONI Ez, ta ezta jakin nai ere.



- JOXE. Kosme daba nere iloba, nere senařaren anayaren alabarekin ezkondua dalako, ta nik aři ezinezayoke ezeř ukatu.
- BONI Zuaz oř bařena ta utzi nazu pakian.
- JOXE. Ez, ez... zuk ezřakizu zeř egin dezun. ¡Baporía ukatu! ¿Bařan bai aldakizu zeř jařdun ta beřiketa jaři dituzun kalyian? ¡llko zaituzte gizona!
- BONI Zuaz ořtik ixilik.
- JOXE. Ez, ez, ez... ni neoni ere iya jo ninduten ikusi nautenian, ez, ez, ez, Boni ezřakizu zeř egin dezun ez, ez, ez.
- BONI Bařan beřitsua.
- JOXE. Ez, ez, ez ezta ori egiten ez, ez... neri ez agindu juateko, alpeřik dezu, alpeřik, ta nik Mikela'ri esan biař diyot.
- BONI ¿Zeř, zeř esan dezu?
- JOXE, Mikelari esan biař diyotala. (*Mikela'ren gelara junaz Boni'k besotik elduaz*).
- BONI Zuk...
- JOXE. Mikela, Mikela.
- BONI ¡A zořgiņa!

## ZORTZIGAREN IRUDIA

### VIII

#### BONI, JOXEPATXO, MIKELA

- MIK. (*Bere gelatik irtenaz*). ¿Zeř da emen?
- JOXE. Mikela, zure aita'ren baporía iya galduan, zure aita ta amabi gizon iya ituan, oř gatzelu atzian, lema galduta edo makina ausita, ezřakit; bařan aizepian ta olatu tařtian iya galdu dira.
- MIK. Zeř diyozu Joxepa.
- JOXE. Egiya.
- MIK. (*Boni'ri*). ¿Juan aldira laguntzera?
- BONI Bai.
- JOXE. Ez, ez gezuřa diyozu. Bapore bat bakařa dago pistuba, aizliyan sařtu dalako, Kosme'k dabilkiyena, ta ořek eztiyo ateratzen utzi nai. Patroitzatik bota egingo duela esan diyo juaten bada.
- MIK. ¿Zeřgatik Boni?



- BONI Añixku aundiya dalako, ta agiyan biyak galduko diralako.
- MIK. ¿Agiyan geñtatu liteken batekin ukatzen dezu laguntza?
- JOXE. Kosme'k nai du, añantzale guztiyak ere bai, izugarizko marmaisua dago kai danian, onen baimenaren sai daudez danok, ta onek ezetz, ta ezetz.
- MIK. Zuaz Joxepa ta esan dijuazela.
- BONI (*Gogor*). Eztijuazela esandet nik, ta eztira juango.
- MIK. ¡Nola, Boni, neronen aita'ri ori ukatu! ¿Ta zu zera orain urte bete ainbeste ontasun eskañi zizkiatzun gizona!
- BONI Ta eman ere egin dizut makiñabat.
- MIK. ¿Zuk neri? ¿Zer?... Galdu det zure gatik gurasoen etxia, nere garbitasuna, lotsak iltzuen nere aitona... ¿oyek al dira zoñ dizkitzuten, ontasunak?
- BONI Ez, oyek ez.
- MIK. ¿Agiyan lau paret aben tañtian goñde ta edukitzia zoñ dizut nik zuri? Ori bada eztizut geyo zoñko, ondo kosta zaizkit emen igarotako egunak, naiz zuk uste ez.
- BONI Neregatik egin zenezake nai dezuna.
- MIK. Zeoñrek naidezuna esan zazu, irñen, ori nai dezu, aspaldiyan oñen bila zabiltza, ori egitearengatik gauñ ukatu diyo-zu nere gurasoari laguntza. Zurekin lusaro itz egin nai nuen, zuri egiyak esan nai nizkitzun, lotsa, baldin badezu añpegi eñtzera, atera nai nizun, bañan ez, orain ez, eztizut ezeñ esango, añen egiñ baizik. Boni, irñengo naiz nun-baitera, nora nai, urñti... utsiko zaitut bakañik, bañan aurena. Boni, salbazazu nere aita. Nere aita da, ta lañi dago, nere aita da, ta gaizki dabil.
- BONI Ezin nezake.
- MIK. ¿Nork galerazten dizu? ¿Ixildu egiten zera? Norbait da. Zuk baren txara izanagatik ez dezu oñen dolora; norbait da, ta norbait ori... emakume enbat. (*Boni'k bizkara altxa ta ixo*). ¿Ixildu egiten zera bigañen aldiyan? Egिया bai da. Utzi egin nai nazu beste bat gatik ta aitzeki bila zabiltza. Utzi, laga, basteñtu, loipetuta gero kale goñiyan jañi... ¿Zertzaizu zuri? ¿Zer galdu dezu zuk?... (*Asañean iguaz*), ¡A! ¿Ta uste dezu ni oñtaratuko naizela geyo gabe? ¿Uste dezu nik, oñ kaliañ, pakiañ utzi zinduztekela juaten alkañtuta zu ta beste emakume ori, agiyan pañez nere eñuak

aoetan aŗtuta...? Ez... ez... esku abek. urte osoan geldik daudezen esku abek, pizkoŗ lan egingo dute zeon aŗpegiyetan (*bat-bateko aldakora*) baŗan ;zeŗ diyot! iBurua galdu det! Aitaz aztutzen naiz nere samintasunak gogoatuaz.

JOXE. Bai, Mikela aitazaz gogoratu.

MIK. Boni, azkaŗa zera, zure bilaukeriyetan. Botatzen nazu ta nai dezu iŗtetia ez madarikatuaz zu esagututako eguna baizik eskeŗak emanaz. Baporía iŗteteko baimena, eman nazu, neroni juango naiz esatera... ta... ez naiz geyo biuŗtuko.

BONI Ez.

MIK. Nola ez?

JOXE. Jendia gora datoŗ, zaudezte ixilik Boni zuaz emendik Kosme'ri baporía ematera.

BONI Zuaz zu, soŗgiŗ ori deabruakin sukaldera.

## BEDERATZIGAREN IRUDIA

### IX

BONI, MIKELA, ANJEL

ANJ. Azkaŗ, azkaŗ oŗtxen Monpas gaŗian dago baporía, fondo bota dute baŗan alpeŗik izango da. Aiziak eta itsasuak badakaŗ aŗoketara.

MIK. (*Belaunikatuaz*). Boni aŗen egiten dizu, neronen aita galtzen ez utzi.

BONI Alpeŗik zabilzate, eztizutet emango, juan beste batekin.

ANJ. Ezpadago pizturik.

BONI Neria eztezute ba eramango, ta esan diyot Kosme'ri iŗor nere baporekorik juaten bada biyaŗtik kanpuan da.

ANJ. iGizon petrala! Uste dezu onela uzten dirala galtzen amabi gizon.

BONI iBa!

ANJ. iBa! iAmabi gizonen biziya? iTa zu zera emakume zirtzil ta txar bateri bultz aldi bat egin niyolako gizon biyotz gabekotzaz jaŗi ninduzuna? iZu, kupitzen etzerana amabi gizonen eriyuakin ta baten alaba oŗetan erorita aŗen egiŗnaz ikusita?

BONI Esan zazu nai dezuna.



- MIK. (*Altxa*). Anjel ez galdu denborarik onekin, zuazte nere aitari laguntzera alde zuten bezela.
- ANJ. Txalupa batian besterik ezpada; lagunak baditut. Itoko banaiz ere juango naiz gizon aytara ta gutxi nezake nik gauñ ekartzen ezpadifut.
- MIK. Jaungoikuak lagunduko dizu.
- ANJ. Berak argi egin dizula zeoñi ere gizon onen ondotik alde egiteko.
- MIK. Zuaz Anjel... ta esan nere aitari garai lañi abetan ezdetala aztu, berakin nagola.
- ANJ. ¡Gajua!

## AMARGAREN IRUDIA

### X

#### BONI ta MIKELA

*Mikela eseriko da. Botako du mai gañera burua ta ekingo dio negarari. Boni'k, itz egiten duen bitartean, piztuko du zigaro bat. Entzungo da beriro ekaitzaren zarata gogoña.*

BONI ¡Ekaitza!... beti beñdiña. Tuñmoyak eta tximistak... gero... (*Mikela'ri begiratuaz*) eudiya... (*alaituaz*) ¡Bigañ eguzkiya!... ¡Noan Dominga ikustera!

*Boni juandakoan altxako da Mikela. Soro begiak dakaizki. Gogai batek lotu du. Bekokia goi, begi ta ao zabal, ta sofin etenaz eraskusten du boñuan dabilkien eztabaita ikaragarria... Erabaki du. Artu du asma, sendoa; ta ezpañetan agertu zaion iripañ eme batek argitu dio, labur, arpegia. Aterako du lepoan daraman kate uñeskoa, ta beatzetako bi edo iru erastun ta botako ditu mai gañera. Tximista, ta ondoren ikaragarizko turmoi bat entzuten da. Burura eraman ditu bi eskuak ta aitari ots egiñaz irtelen da.*

MIK. ¡Aita!... ¡Aita!... (*Oiala pizkor*).

## AMAYA



The first part of the paper is devoted to a general discussion of the problem. It is shown that the problem is well-posed in the sense of Hadamard. The second part is devoted to the construction of the solution. The third part is devoted to the study of the properties of the solution. The fourth part is devoted to the study of the stability of the solution. The fifth part is devoted to the study of the convergence of the solution. The sixth part is devoted to the study of the error of the solution. The seventh part is devoted to the study of the numerical solution. The eighth part is devoted to the study of the application of the solution. The ninth part is devoted to the study of the conclusion. The tenth part is devoted to the study of the references.

X

The first part of the paper is devoted to a general discussion of the problem. It is shown that the problem is well-posed in the sense of Hadamard. The second part is devoted to the construction of the solution. The third part is devoted to the study of the properties of the solution. The fourth part is devoted to the study of the stability of the solution. The fifth part is devoted to the study of the convergence of the solution. The sixth part is devoted to the study of the error of the solution. The seventh part is devoted to the study of the numerical solution. The eighth part is devoted to the study of the application of the solution. The ninth part is devoted to the study of the conclusion. The tenth part is devoted to the study of the references.

XI

The first part of the paper is devoted to a general discussion of the problem. It is shown that the problem is well-posed in the sense of Hadamard. The second part is devoted to the construction of the solution. The third part is devoted to the study of the properties of the solution. The fourth part is devoted to the study of the stability of the solution. The fifth part is devoted to the study of the convergence of the solution. The sixth part is devoted to the study of the error of the solution. The seventh part is devoted to the study of the numerical solution. The eighth part is devoted to the study of the application of the solution. The ninth part is devoted to the study of the conclusion. The tenth part is devoted to the study of the references.



